

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko abenduaren 16a. VIII. urtea. 2.326. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Tolosari buruzko lehen entziklopedia argitaratu dute

Mikel Gotzon Telleriak idatzi du 'Enciclopedia General Básica de Tolosa'; hainbat bitxikeria bildu ditu idazleak ◊4



Herenegun aurkeztu zuen Telleriak, bere azken argitalpena. I. GARCIA



→ **Trukea berreskuratu nahian.** Tolosako Udalak eta Denbora Bankuak Truke Eguna antolatu dute iganderako. Zerkausion izango dira ekitaldiak, eta tartean, nola ez, materiala trukatzeko aukera izango da. Denbora Bankuaren aurkezpenaz gain, beste solasaldi batzuk egingo dituzte hainbat eragilek. ◊4

Udalak kanpaina abiatu du ontzi berrerabilgarrien alde

Amasa-Villabonako Udalak eta Kutxa Ekoguneak ontzi berrerabilgarrien sustapena bultzatu nahi dute herritarren artean; zero zabor politikaren barruan kokatu du udalak ◊6

Tolosako Bonbereneak 14. urteurrena ospatuko du datozen egunetan

Inde Kitxenen azken kontzertua izango da gaur, eta bihar omenaldi berezia izango dute; hil bukaera arte egongo dira ekitaldiak ◊2

10 urtez eskualdeko berriak txoko guztietara zabaltzen

'Egunero' ren urteurrena izango da igandean; egunkari hori da, hain justu, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN aitzindaria; lehen erredakzioak «ilusioz» hartu zuten proiektua ◊3

BIHAR, Tolosako Gabonetako Azoka Berezian

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburua erosteko aukera izango duzue, HITZAK Gernikako Arbolaren inguruan jarriko duen postuan.

Prezioa: 18 €

Harpidedun txartelarekin: 15 €

Bertan ere eskuragarri izango dituzu...

- 2012ko mahai egutegia
- 1936ko Gerrako Oroitzapenak Liburua: 10€ (harpidedunek 8€)
- Bi liburuak erosiz gero: 25€ (harpidedunek 20€)



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza



Hamalau urteko ibilbidea ospatuko du Bonbereneak hilabete honetan

Zendu berri den Lander Zabalza 'Txabala' omenduko dute bihar goizean, kalejiraren aurretik

Itzea Urkizu

Duela hamalau urte Tolosako hainbat gaztek hasi zuten bidetari jarraituz, beren urteurrena ospatuko dute Bonbereneako kideek, urte amaiera bitarte.

1997ko abenduan okupatu zuten, Alondegiko eremuan, noiz-bait eskualdeko suhiltzaileen egoitza izan zen eraikina. Honek eman zion, hain zuzen, Bonbere-

nea izena etxeari. Lehen egun haietan zenbait kontzertu antolatu zituzten gazteek; udalaren babesik ez zuten, ordea, eta egun batzuen buruan eraitsi zuten eraikina.

Mobilizazioak eta protestak nagusi izan ziren 1997ko eguberri haietan, eta Euskal Herria plaza-ko eraikinean ere ez zuten denbora askorik egin. 1999. urteko abenduaren 23an okupatu zute, azkenik, gaur egun Bonberenea bezala ezagutzen dugun San Estebango eraikina. Bonberenearen 14 urteko historia ospatzeko, beraz, *Hainbat ospakizun, gaitzearna eginkizun* lelopean, egitarau oparoa izango da.

• tolosa@hitza.info



Inde Kitxen taldearen agur kontzertua izango da gaur, Bonberenean. EZEZEA

↓ Egitaraua

ABENDUAK 16, OSTIRALA

22:30. Inde Kitxen taldearen agur kontzertua.

ABENDUAK 17, LARUNBATA

11:00. Lander Zabalza *Txabala* omenaldia, eta gero kalejira.
14:30. Bazkaria.

ABENDUAK 23, OSTIRALA

21:00. Okupazio eguneko afaria.
23:59. Su artifizialak.

ABENDUAK 26, ASTELEHENA

22:00. Futbolin txapelketa.

ABENDUAK 28, ASTEAZKENA

22:30. Galukoma Sound System, Dolce Tangana eta Atila y los Unos taldeen kontzertua.

ABENDUAK 29, OSTEKUNA

22:00. Mus txapelketa.

ABENDUAK 30, OSTIRALA

22:30. Zea Mays taldearen kontzertua.

ABENDUAK 31, LARUNBATA

12:00. Tolosa Kantariko DVD aurkezpena, Tontokalen.

Ander Lizaso ◊ Inde Kitxen taldeko kidea

Otsabiko sukaldean jo zituzten lehen akordeak, eta hark eman zien izena. 2007az geroztik Tolosako eta eskualdeko oholtzetan aritu ondoren, gaur eskainiko dute Bonberenean, azken kontzertua.

«Ideia berriak ez dira hasieran bezala sortzen»

I. Urkizu

Inde Kitxen taldeko kidea da Ander Lizaso (Ibarra, 1981). Lauzprobost urteko ibilbidearen ondoren, gaur eskainiko dute azken kontzertua.

Noiz hasi zineten talde moduan biltzen?

Seriotasun pixka batekin 2007 inguruan hasi ginen. Lehenago ere geratzen ginen jotzeko, baina Otsabi lokalen egin zen kontzertu baten harira hasi ginen talde bezala biltzen.

Inde Kitxen izena nola sortu zen?

Otsabiko lokaleko sukaldean egin ditugu entseguak. Bateria bat azaldu zen han, eta bertan hasi ginen jotzen. Lokaleko gazteak

kontzertu bat egiteko esanez hasi zitzaizkigun, eta guk oso argi ez genuen arren, baiezkoa eman genuen. Izenik ez genuen, ordea, eta Inde Kitxen jartzea bururatu zitzaigun.

Eta nolakoak dira lehen kontzertu hartako oroitzapenak?

Uztailaren 6an izan zela uste dut, eta Nekro taldearekin batera jo genuen. Ez genuen ekiporik eta eurek utzi ziguten guztia. Oso urduri geunden, baina oso oroitzapen onak ditugu.

Sputnik 11 diskan parte hartu duzue beste hiru talderekin batera. Nola-koa izan da esperientzia?

Talde bakoitzak estudioan abesti pare bat grabatzeko aukera eskaini digu. Bonbereneakoek deitu zi-

guten proposamena azalduz, eta baiezkoa eman genuen. Gainera, lau taldeatik hiru Otsabin hasi ginen entseguak egiten; Glaukoma Sound System bertan aritzen da oraindik ere, eta Switch-ekoak ere han hasi ziren. Beraz, ilusio berezia egin zigun horrek ere.

Gaur emango duzue azken kontzertua. Zer dela eta utziko diozue elkarrekin jotzeari?

Ideiak ez ziren lehen bezala etortzen, eta pixkanaka uzten joan garren zerbaite izan da; atsedendaldi moduan hartuko dugu hau eta gerora berriro elkartzearena ez dugu inola ere baztertu. Switch-en lokalean aritu gara entseguak egiten, eta abesti bereziak prestatu ditugu.

El Salvadorko gerra zibilari buruzko dokumentala eskainiko dute

I. Urkizu

El lugar más pequeño izenburupean, El Salvadorren hamabi urte baino gehiago iraun zuen gerra zibilari buruzko dokumentala izango da ikusgai gaur, 19:00etan kultur etxean.

Donostiako Zinemaldian parte hartu zuen filmak, eta Tatiana Huezoz zuzendaria ere bertan izango da, Rosi Alvarenga filmeko pertsonaietako batekin batera, dokumentaleko irudiez hitz egiteko.

Esperientzia oso gogorrak bizi izan ondoren, gizakiak bere burua birsortu eta burua altxatzeko duen gaitasunaz ariko da film dokumentala. El Salvadorko errepublikako gerra zibilean kokatuta.

• tolosa@hitza.info

→ Laburrak

'Yau Samayaye' diska salgai, biharko azokan

MUSIKA › Laskoraingo Lask abesbatzak *Yau Samayaye* diska argitaratu du. Bihar Gabonetako Azoka berezian eskuragarri izango da, ikastolak Tontokalen jarriko duen postuan.

Emakumea Pilotari txapelketako finalerdiak

PILOTA › Ezker hormako emakumezkoen pala txapelketako finalerdiak izango dira bihar, 16:30ean, Beotibarren. Arriola-Ugalde eta Jauregi-Lendinez-en artekoa izango da 2.mailako partida; 1. mailan Etxegia-Mendizabal eta Irazu-tabarrena-Argain ariko dira.



Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldia, bi autorentzako garaia, txokoa, jardina eta trastelekua. Interesatuak deitu 678 267657 telefono zenbakira.

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Tolosan etxebizitza alokatzen da. Interesatuak deitu 635 706 843ra.

 <p>saridunak</p> <p>HITZAK harpidedunentzat bi sarrera pare ditu</p> <p>Tolosako Orkestra Orkestra de Tolosa</p> <p>Eguberriko kontzertua</p> <ul style="list-style-type: none"> • Maria Dolores Juantorena (Leitza) • Imanol Odriozola (Tolosa) <p>Abenduak 17 • Larunbata 20:30ean, Tolosako Leidorren</p> <p>Sarrerak leihaitlan bertan</p>	 <p>sarrerak</p> <p>HITZAK harpidedun batentzat sarrera pare du</p> <p>LAGUN ARO GBC Fuenlabrada</p> <p>saskibaloitako partida</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aloña Usandizaga (Irura) <p>Abenduak 17 • Larunbata 20:00etan, Donostiako Ilunben</p> <p>Sarrerak HITZaren egoitzan</p>
---	---



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Igandean 10 urte beteko dira eskualdean 'Tolosaldean Egunerok' egunkaria sortu zela. Eskualdeko herrien informazioa euskaraz eman eta zabaltzea zuten helburu, HITZAK lehen erredakzioko kazetariekin hitz egin du.

10 urtez berriak zabaltzen

Eneritz Maiz - Itzea Urkizu

Abenduaren 18a zen Tolosaldeko *Tolosaldean Egunerok* egunkariaren lehen alea argitaratu zen eguna. Igandean hamar urte beteko ditu, beraz, eskualdeko euskarazko egunkariak. 28 herrietako albisteak euskaraz hutsez ematen zituen lehena izan zen, eta Tolosaldeko esperientziaren ostean, Euskal Herriko beste sei eskualdetan ere sortu dira HITZAK.

2003. urteko otsailaren 21ean, *Egunerok* Euskal Herriko euskal egunkari bilakatu zen. Egun bat lehenago, Juan del Olmo epaileak *Euskaldunon Egunkaria* Andoainen itxi zuelako izan zen. *Egunerok* Tolosan zuen egoitza hartu zuten *Egunkariako* langileek. 2003ko ekaina bitartean argitaratu zuten *Egunerok*. Eta eskualdeko egunkari hark, **TOLOSALDEKO HITZAK** izena hartu zuen.

Euskarazko Komunikazio Taldea sortu zuten, *Berria* egunkaria sortuz. 2004. urteko maiatzean sartu zen Leitzaldea **TOLOSALDEKO HITZAK**. Lehen lau urte haietan, Joxemi Saizar izan zen erredakzioko zuzendaria, eta beste sei kazetariarekin batera ateratzen zuten egunkaria aurrera.

Sei kazetari lanean

Tolosako albisteak, Leire Montes eta Aitor Elduaienek biltzen zituzten. Anoetaldeko herriez, Gar-

biñe Mendizabal arduratzen zen; Alegialdea Maider Jauregiren esku zegoen; Ibarraldeko berri emailea Iratxe Etxebeste zen, eta Villabona-Aiztondoko herrietako berriak, Unai Urreagak jorratzen zituen.

10 urte pasa direla esatean guztiak harritu dira, eta begirada atzera bota eta lehen egun haie-taz hitz egiteko eskatu die HITZAK. Iratxe Etxebeste oso lantalde gaztea zela oroitu du, «ilusio handiarekin hasi ginen, eta ikasteko gogoarekin. Ia guztiak ikasleak ginen, eta ikasketak utzita hasi ginen lanean. Beldur pixka bat ere izan nuen». Hasiera hartan zailena, «herri bakoitzeko informazio iturria zein izango zen aurkitzea izan zen», dio. Esperientzia «aberatsa izan zen, eta asko balio izan dit nire ibilbiderako, *Egunerok* lan egiteak», azpimarratu du.

Aitor Elduaienek haxe kontak-tu du: «Aputu bat izan zen, eta poztekoa da proiektua hor dagoela ikusteak». Lantalde hark egin zuen lana, «oso polita» izan zen. Herri txikietako kazetariak dago-kiean, «meritu handia izan zu-ten», dio. Baina kritika ere egin nahi izan du Elduaienek, «euskal produktuak kontsumitu egin behar dira, eta hitzez gauza asko esaten dira, baina, gero ekintza gutxi ikusten ditut».

Garbiñe Mendizabalek hona-koa azaldu du: «Baliabide gutxi-rekin baina ilusio handiz hasten zen proiektu berri baten partaide



Ezkerretik eskubira Eguneroko erredakzioa; Etxebeste, Mendizabal, Elduaien, Montes, Saizar, Jauregi eta Urreaga. EGUNEROK

ginela gogoratzen dut. Euskaraz-ko komunikabideak herritarrei iristea zen erronka nagusia, bai-na baita beste komunikabideetan ahotsa ez zuenari ahotsa ematea ere». Mendizabalek ere gogoan du, «hasiera batean berriak aur-kitzea kostatu» egiten zela. Buka-tzeko, «Zorionak *Egunerok* eta HITZAKI eguneroko lanagatik eta beste hamar eta gehiago opa diz-kiuet», gehitu du.

Maider Jauregirentzat, «esko-

la» izan zen: «19 urterekin hasi nintzen, ezagutza gutxiarekin bai-na ilusio handiz. Eskualdean inoiz ezagutu gabeko proiektua zen, berria denontzat, irudimena-ren tailer bat, hurbileko informa-zio fabrika bihurtu nahi genuen-na».

Hasieratik herriaren babes za-bala izan zutela gogora ekarri du, «baina errezeloz begiratzen gin-tuenik ere izan zen. Batzuk eta besteak gure agendetan sartzea

izan zen kazetariaren lorpenetako bat», dio.

2003ko otsailaren 20an *Egunerok* zegoen: «Egun hark, eta area-go biharamunak, kazetaritza es-koletan irakasten ez diren gauza asko erakutsi dizkidate. Gure her-riari hitzak duen balioa ere bai. Egunerok sortu zenetik 10 urte pa-satu dira, eta oraindik jarraitzen dut pentsatzen euskaldunok egi-teke dugula gogoeta sakon bat euskal prentsaren eta euskaraz-ko komunikabideen orainaz eta etorkizunaz», gaineratu du.

Unai Urreagarentzat «erron-ka» izan zen *Egunerok* egunkari- lanean hastea. «Ikasten ari nin-tzen, eta nire lehen lan esperien-tzia izan zen. Euskaraz hutsean eta egunerok atera behar genuen zerbait izan, erabat gauza berria. Ilusioarekin, baina errespetua eta beldur pixka bat ere izan nuen lanean hasteko. Gertukoak zen eta nik uste dut jendeak ondo hartu zuela proiektua», azaldu du.

Leire Montes kazetariari buru- eta etorri zaion lehen hitza, «ilu-sioa» izan da. Talde giroa ere azpi-marratu nahi izan du. «Aurretik ez zegoen ezer eta benetako kaze-taritza zen gurea. Estresa sortzen zuen. Kalera atera behar zen al-bisteen bila, eta herri txikietak-ek lan handia egin zuten», argitu du. «Harro egoteko moduko senti-mendua dut. Zerbait berria egin genuen, eta guk eman genituen lehenengo pausu haiek oraindik irauten dute».

Joxemi Saizar • 'Egunerok' egunkariko zuzendaria eta HITZAKO zuzendari ohia

«Albiste bihurtu ziren ordura arte inon lekurik ez zuten kontu asko»

I. Urkizu Tolosa

Egunerok egunkariko lehen zuzen-daria izan zen Joxemi Saizar (To-losa, 1961), eta lehen egun haie-tako ilusioa ekarri du gogora.

Nola sortu zen tokiko euskarazko egunkari bat egitearen ideia?

Udalak bultzatutako plan bat ze-goen, komunikabideetan euska-ra sustatzeko-eta. *Galtzaundire-kin* 1990ean hasi ginen, hilabete-karia argitaratzen; gero, hamabostekari bihurtu zen. Kom-unikabideetan euskararen nor-malkuntza sustatzeko, ordea, egunkaria ere gehiago lor zez-a-keela ikusi genuen. Jendea egu-nero euskaraz irakurtzera ohitze-

ko modu bat zen, bertako infor-mazioaren bidez.

Nola gogoratzen dituzu lehenengo egun haiek erredakzioan?

Kaos bat. Dena berria zen, eta ni *Galtzaundin* ohitua negoen arren, ez da gauza bera hamabos-tekari bat argitaratzea edo egune-ro produktu bat argitaratzea. Ilu-sio handiz egindako proiektua izan zen, baina ezjakintasun han-diz egindakoa, era berean. Kaze-taritzako ikasleak ziren ia denak, esperientzia handiegirik gabeko-ak gehienak. Langileez gain, or-malkuntza sustatzeko, ordea, e-gunkaria ere berriak ziren, eta *Euskaldunon Egunkaria*ko jendeak ekarri zi-gun azpiegitura guztia. Enekoitz

Esnaola aipatu behar da, zuzen-dari bezala nire izena zegoen arren, bere ekarpena izugarria izan zelako. Egunerok zortzi orri-ko egunkaria beteko genuenaren za-lantzak ere izan zituen jendeak, baina gerora ikusi dugu posible dela.

Egunerok harrera beroa izan zuen eskualdean?

Bai. Hasieran buzoietan doan ba-natzen genituen, egunerok 10.000 ale. Gero harpidedunak bilatu ge-nituen, baina horrez gain, eragile zein enpresek ere diru asko jarri zuten proiektu honen alde. Gai-nera, aurrez egin genituen aur-kezpenekin ere jakinmina piztu zen eskualdean.

Zenbat urtetan aritu zinen egunkari lanean?

Lau urtez. Lehen bi urtetan Las-koraingo lanarekin uztartu nuen, baina gero bi urte hartu nituen, erabat egunkarian aritzeko. Oraindik ere kolaboratzen dut HITZAK, eta oso gertuko zerbait be-zala sentitzen dut, nire produk-tua ere badela, nolabait.

Hamar urte hauetan, Euskal Herriko beste eskualde batzuetan ere sortu dira euskarazko egunkariak. Urte hauetan guztietan nola aldatu da euskal prentsaren egoera?

Orain ohitu egin gara, baina 2001ean *Euskaldunon Egunkaria* zegoen maila nazionala, eta to-kiko egunkari bakarra zen *Tolo-*

saldean Egunerok. Hamar urtean asko aurreratu da, eta HITZAK gain, beste komunikabideek ere aurrerapauso handiak eman dituzte; *Berria* ere askoz hobea iruditzen zait *Euskaldunon Egunkaria* baino. Euskarazko askoz ere komunikabide gehiago daude, eta belaunaldi berriek normal-tzat dute euskarazko prentsa, irrata edo telebista izatea.

Euskarazko tokiko hedabide batek zein ekarpen egiten duela uste duzu?

Hasteko, gertutasun hori. Egun-kari honek albiste bihurtu ditu, ordura arte inon lekurik ez zuten gauza asko. Eskualdeko herri txi-ki asko ez ziren sekula egunka-riari ateratzen, eta *Egunerok* eta HITZAK hori aldatu dute. Tolosal-dean elkarren berri izateko balio izan du, beraz. Bestalde, maizta-sun horrekin argitaratzeak, au-rretik euskaraz sekula irakurri gabeko herritarrak bultzatu zi-tuen euskaraz irakurtzera, ilu-sioz.

Osatzuz joango den entziklopedia

Mikel Gotzon Telleria tolosarrak Tolosari buruz argitaratu duen liburua aurkeztu du

Imanol Garcia

Mikel Gotzon Telleriak Tolosari buruzko entziklopedia argitaratu du, *Enciclopedia General Básica de Tolosa* izenburupean. Herenegun arratsaldean aurkeztu zuen Kasino elkartearen jende ugariaren aurrean. Telleriak azaldu zuenez, «liburuan ez dago, noski, Tolosari buruzko informazio guztia. Baina, bestalde, jakina da idazten ez dena gero ahaztu egiten dela. Maitasun osoz egindako lana da».



Recondo, Ruiz de Alegria, Eiguren, Bildarratz eta Telleria, aurkezpenaren. I. GARCIA

Egileak irakurleen parte hartzea eskatu zuen, entziklopedia osatu ahal izateko: «Akatsak edo sartu gabeko informazioa ikusten dituenak, mesedez nirekin kontak-

tuan jarri dadila. Politena pixkana entziklopedia handituz joatea da, eta hori denen artean egitea».

Aurkezpenaren bere ondoan izan zituen Andia elkarteko Jose

Antonio Recondo eta Jose Leon Eiguren, Tolosako Orfeoiko zuzendaria den Jose Ignacio Ruiz de Alegria eta Jokin Bildarratz alkatetza ohia. Guztiek gorai patu zuten

Telleriak egindako lana, eta eskertu zioten argitalpenaren jarritako esfortzua.

Egileak liburuaren hainbat azalpen eman zituen, eta argitalpenaren dauden zenbait bitxikeriaren berri eman zuen. Entziklopedian mota guztietako sarrerak daude: pertsonak, eraikinak, leku eta txokoak, gertakizunak... Besteak beste, herriaren 38 zubi daudela azaldu zuen Telleriak, eta herriaren izena duen asteroiden bat dagoela.

Liburuaren ale asko ez dira gelditzen. Eskuratu nahi dituenak Kutzaren San Frantzisko etorbideko sukurtsalera edo kultur etxera joan beharko du. Telleriaren asmoa entziklopedia interneten zintzilikatzea da, eta aurrerantzean irakurleek eta oro har, herritarrek ematen duten informazioarekin osatzea. Horretarako mikeltt@terra.es helbidera idazteko eskatu zuen.

Trukea egiteaz gain, hainbat esperientzien berri jasotzeko aukera

Tolosako Udalak eta Denbora Bankuak antolatu dute Truke Eguna; etzi egingo da, Zerkausian

Imanol Garcia

Denbora Bankuak eta Tolosako Berdintasun sailak Truke Eguna antolatu dute igandeko, Zerkausian. Egun horretako muina trukea izango bada ere, azoka bat baino zerbait gehiago antolatu nahi izan dute. Hala, hainbat mugimendu, esperientzia eta proposamen aurkeztu eta zabalitzeko baliatuko dute eguna.

10:00etan hasiko da truke azoka. Bertan parte hartu nahi duenak bere materiala eraman beharko du. Mahaiak egongo dira materiala erakusgai jartzeko. Noski, dirua ezingo da erabili, beraz, zerbait eskuratu nahi duenak,



Atzo egin zuten Truke Eguneako aurkezpena, kultur etxean. A. IMAZ

bat sortzen ari direla azaldu dute udaletik. Bestalde, Mugarik Gabeko bi kidek deshazkundeari buruzko solasaldia ematez gain, bere elkartearen berri emango dute. Elkarte horrek hainbat aldiz kolaboratu du Berdintasun sailarekin. Azkenik, Denbora Bankuko kidea den Ana Sanzek esperientzia ekonomiko alternatiboei buruz hitz egingo du, tarte-

an kontsumo taldeak. Solasaldiez gain, musikari eta dantzari tarteak eskaini nahi diote, eta horretarako al-Qamar dantza taldeak parte hartuko du Truke Egunean.

↓ Egitaraua

- 10:00-19:00. Trukea egiteko aukera.
- 12:00. Tolosako Denbora Bankuaren aurkezpena. Ondoren, sabel dantza tailerra al-Qamar taldearekin. Jarraian, Donostiako eta Zumarragako hainbat kulturetako emakume taldeen aurkezpena.
- 14:30. Bazkaria.
- 17:00. Deshazkundeari buruzko solasaldia eta Mugarik Gabe elkartearen aurkezpena. Ondoren, esperientzia ekonomiko alternatiboei buruzko hitzaldia, Ana Sanzen eskutik. Jarraian, al-Qamar taldearen sabel dantza emanaldia.

an kontsumo taldeak. Solasaldiez gain, musikari eta dantzari tarteak eskaini nahi diote, eta horretarako al-Qamar dantza taldeak parte hartuko du Truke Egunean.

Napoleonen garaiko musika, 'Bayoneta' aldizkariaren 10. aleko gaia

I. Garcia Tolosa

Tolosako udal artxiboak Bayoneta aldizkariaren 10. alea zabalduko du bihurtik aurrera. Ale bakoitzarekin egiten duten bezala, gai bati heldu diote, eta oraingoan Napoleonen garaiko musika izango da.

Ale bakoitzaren argitalpena egiterakoan, ekitaldiren bat egiten dute, eta bihurtako udal musika eskolako irakasleek eta ikasleek egingo duten kontzertua antolatu dute. Musika eskolako aretoa izango da, eta 11:30ean hasiko da saioa.

Musika emanaldiarekin batera banatuko da aldizkariaren 10. alea. Bestalde, Aranburu jauregian, kultur etxean, udaletxean eta Fronton kafetegian eskuratu ahal izango da. Udalaren webgunean ere zintzilikatuko dute aldizkaria.

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Udalarekin euskaraz, zure eskubidea delako!

Do itze hitzak euskaraz • Tolosaren hitz egiteko • Hitz egiteko zure eskubidea • Udalarekin euskaraz hitz egiteko

TOLOSAKO UDALA

Hizkuntza zuzendaritza eta Euskarazko saila
Tel. 943 650 337 • euskaraz@tolosa.net

Kaixo Olentzero!

Aurten, oso ondo portatu naiz eta
familiareantzako etxe berri bat
eskatu nahi dizut.



Anoeta

Terraza zabalak eta ikuspegi argitsuak dituzten 2 eta 3 logelako etxebizitzak dira, kalitate bikainekoak eta sukalde erabat hornituaz. **224.000 €**-tik hasita.



GE
grupo eibar
inmobiliario

943 31 66 11

Ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko eskatu die udalak herritarrei

Kutxa Ekoguneak eta Amasa-Villabonako Udalak sei hilabete iraungo dituen kanpaina aurkeztu dute

Asier Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak herritarrei ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko eskatu die, bai etxean eta baita erosketak egiterako garaian ere. Eskari honen arrazoiak eta beharrak zeintzuk diren azaltzeko, sei hilabeteko kanpaina jarriko du abian udalak.

Lehen urratsa atzo bertan eman zuten, Galder Azkue alkateak eta Rosa Arregi Ingurumena eta Mendiak saileko zinegotziak. Bilduko bi ordezkariak ontzi berrerabilgarria aurkeztu zuten prentsaurrekoan, Amaia Otazo Kutxa Ekoguneko Kontsumo arduraduna alboan zutela. Izan ere, ekimena ez da azken egunean otu zaien zerbait, lanketa baten ondo-



Otazo, Azkue eta Arregi ontzi berrerabilgarriaren aurkezpenean. A.I.

ria baizik. Kutxa Ekogunearen eta udalaren arteko hitzarmenetik sortutako kanpaina dela azaldu zuen Azkuek: «Udalak, beste hainbat udalerrik bezala, zero zabor politika martxan jartzeko asmoa hartu zuen, eta ekimen hau hor kokatzen dugu. Herritarrei ontzi berrerabilgarriak erabiltzeko eskatzen diegu, eta baita herrian kontsumitzea ere». Azkuek azaldu duenez, ontzien helburua zabor gutxiago sortzea izango li-

tzateke, eta berrerabilpena bultzatzea. Herriko hainbat arrandegi eta harategik ere ekimenarekin bat egin dute; ondorioz, jakiak plastikoa edo paperean bildu beharrean ontzietan jarriko lituzkete. Erosketak modu horretan egiten dituenak, zozketa batean ere parte hartuko luke. Ontziak dohain banatuko dituzte Berdura plazan: hilaren 19an, 15:00etatik 19:00etara, eta hilaren 20an, 09:00etatik 13:00etara.

→ Laburrak

'Martxan' dokumentala eta solasaldia, gaur

ANOETA › *Martxan* dokumentala ikusteko aukera egongo da gaur, hilak 16, Mikelasagasti auditorioan 19:00etan. El Salvador, Guatemala eta Euskal Herriko zazpi emakume feministen ahotsen bitartez, munduko toki guztietako emakumeek aurre egiten dituzten indarkeria matxista desberdinen inguruko gogoeta egiten du dokumentalak. Ondoren, solasaldia izango dute, Mugarik Gabe elkarteak dinamizatuta.

Parekidetasunaren inguruko tailerra, bihar

ANOETA › Parekidetasunaren gaia lantzen hasi nahi du Anoetako Gazte Asanbladak, eta horren harira dinamika bat antolatuko dute bihar. 16:00etatik aurrera, proiektzio, joko eta tailerren bidez landuko dute gaia gaztetxean, Oreka elkarteak monitoratuta. Ondoren, afari-merienda egingo dute, eta egunari amaiera emateko Hutsa bakarlariaren kontzertua izango da bertan, 22:30ean.

Frontoiko ordutegiaren banaketa egiteko bilera

ANOETA › 2012. urterako frontoiko ordutegiaren erreserba egin nahi duten guztiak, bilera batera deitu ditu udalak. Bertan, urteko ordutegiaren banaketa egingo dute. Bilerak hilaren 20an, asteartean, izango da udaletxean, 18:30ean hasita.

'Morau'ren kontzertua Iturriondo jatetxean, gaur

ASTEASU › Andoni Tolosa *Morauren* kontzertua antolatuko du gaur Kultur Taldeak. *Euskal kantagintza berriaren historia laburra, 1961-1990* gaia jorratuko du bakarlariak, Iturriondo jatetxean eskainiko duen emanaldian. Kontzertua 20:30ean hasiko da, eta sarrera dohain izango da.

Frontoia bihar berrinauguratuko dute

ALKIZA › Frontoia berrinauguratuko dute Alkizan, 16:30etik aurrera. Lehenik pilota partidak jokatu-ko dituzte, benjaminen eta gazteek. Alkatearen agurraren aurretik, herriko neskek aurrerakua dantzatuko dute. Jarraian, jaietako veteranoen finalaren errebantxa jokatu dute. Bi botilero bereziren laguntza izango dute pilotariak: Anjel Mari Peñagarikano eta Iker Zubeldia bertsolariena. Ekitaldiari amaiera emateko txokolatete jatea egongo da.

Patxi Zeberio txapel berri bat lortzeko aukera dauka

ELDUAIN › Erremonteko binakako txapelketaren finala bihar, hilak 17, jokatuko da Hernaniko Galarreta pilotalekuan, 16:45ean. Patxi Zeberio bertan egongo da, txapela irabazteko asmoz. Elduaindarrarekin batera, bikotea osatzen, Ionek jokatu du. Aurkariak Juaristi-Lizaso izango dira. Hauek finalerdietan Aizpurua II.a utzi zuten txapelketatik at, Ezkurra-ekin batera.

Mendi federatu txartela berritzeko aukera

AMASA-VILLABONA › Aizkardi mendi taldeak ibilaldia antolatu du etzi, hilaren 18an. Tolosa, Otsabi eta Betelu arteko ibilaldia egingo dute, 07:45ean Villabona-Zizurkilgo tren geltokitik abiatuta. Horrez gain, asteartean eta ostegunetan mendi federatu txartela berritzeko aukera egongo dela azaldu dute, 20:00etatik 22:00etara, mendi taldearen egoitzan.

Eguberrietako txapelketaren finalak

AMASA-VILLABONA › Behar-Zana pilota eskolaren Eguberrietako txapelketaren finalak hilaren 18an, igandean, jokatu-ko dira Bearzana pilotalekuan, 11:00etatik aurrera. Eskuz binakako txapelketaren finalak hiru mailatan jokatu-ko dira: aurre benjaminak, benjaminak eta alebinak.

Jexux Mari Irazuk zazpi aurkari izango ditu txapelaren lehian

Donostiako Illunben jokatu den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finala 16:30ean hasiko da

A. Imaz Larraul

Jexux Mari Irazu Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finalean egongo da hilaren 18an, etzi, Donostiako Illunben. G puntuan parte hartu duten bertsolari guztien artean, zortzi onenak iritsi dira azken geltokira. Finaleko tre-

na 16:30etik aurrera abiatuko da, eta aurrez inork Gipuzkoako txapela ez duela jantzi aipatu behar da.

Hiru finalurrekoak kontuan hartzen baldin badira, Jexux Mari Irazu larrauldarra izan da puntu gehien lortu dituen. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi faboritua izango denik, beste zazpiek ere maila altua erakutsi baitute txapelketa guztian zehar. Azken saio honetan, larrauldarra izango da veteranoena.

Finalean, beraz, ondorengo zortzi bertsolariak egongo dira igandean: Jexux Mari Irazu, Ai-

tor Sarriegi, Beñat Gaztelumendi, Unai Agirre, Agin Rezola, Alaia Martin, Iñaki Apalategi eta Jon Martin.

Donostiako Illunben 10.000 bertsozale elkartzeko dira finala zuzenean jarraitzeko asmoz. Sarrerak erosteko aukera oraindik ez da agortu; *bertsosarrerak.eu* webgunean eskuratu daitezke.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finala 16:30ean hasiko baldin bada ere, Illumbeko ateak 15:00etan zabalduko dituzte. Ordu t'erdiko tarte horretan, antolatzaileek hainbat ekitaldi antolatuko dituzte giroa berotzeko.

CITROËN C4 BERRIA
POSITIVE POWER

Jarrai gaitzazu:

PLAN RENOVE + CITROËN
HILABETE HONETAN
JASO ITZAZU

3.000 €
ZURE IBILGAILU ZAHARRARENGATIK.*

CITROËN

GRUPU TEKNOLOGIKO

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean V →**Joxemi Saizar**

Euskal kulturak bilakaera handia ezagutu zuen frankismoan eta trantsizioan Tolosaldean. Gerra ondorengo lehen urteetan euskal kutsua zuen guztia debekatuta zegoen, baina urteak aurrera joan ahala zirrikituak irekitzen joan ziren, eta euskalduntasunaren gosen jendeak ederki aprobetxatu zituen zirrikitu horiek. Bilakera honen berri ematen da *Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean* liburuan.

1936ko gerraren ondoren Elizak eta *Movimiento*ak kontrolatzen zituzten kulturarekin (eta beste gauza gehienekin) zerikusia zuten alor guztiak. Kristau gaiei buruzko hitzaldiak eta bilera egiten ziren Accion Catolican. Geroago, gazteekin aritzeko, Oargi elkarteak sortu zuen parrokiak. Mendi irteerak, beste kirolak eta zenbait kultur gai ere jorratzen zituzten bertan. Adibidez, Elizako Fides enpresak zine-kluba bazuen (60ko hamarkadaren hasieran desagertu zena), baina gazteek beraien zine-kluba sortu zuten Oargin 1966an, ia Franco hil arte iraun zuena, Jesus Mari Penillak liburuan egindako elkarrizketan agertzen duenez. Tolosa Irratia ere Santa Maria parrokiatik sortu zen, eta 1959tik 1964ra funtzionatu zuen Karlos Agirre apaizaren ardurapean. Bertan euskarak bere txokoa izatea lortu zuen. *Movimiento*ak Frente de Juventudes zuen eta hor biltzen ziren gero herriko jaietako ekitaldietan ateratzen ziren dantzariak, adibidez.

Baina monopolio horietatik aparte, hasi ziren herrian beste kutsu bateko kultur talde batzuk sortzen. Korazonistetan adibidez, abesbatza eta dantza taldeak izan ziren, Gazte Kordimarianen barruan. Emakumeen dantza taldea eta mutilena (Aritz izenekoa) sortu ziren bertako Les eta Berro eta fraileen ekimenez 1940ko hamarkadaren bukaeran, eta urte batzuetan zehar bere entsegu eta emanaldiekin aritu ziren Tolosan eta inguruko herrietan. Beranduago, 1957an, Udaberri dantzari taldea sortuko zen bi apaiz sakra-

Euskal kulturaren bilakaera ere aztertzen da kaleratu berri den 'Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean' liburuan, debekuak gainditu eta ekimen berriak sortu baitziren.

Kultura pixkanaka berpizten



Ixaka Lopez-Mendizabal Laskorain ikastolako lehen haurrekin. HITZA

mentinoren bultzadaz, eta gaur egun arte iraun du nazioarteko irteerak eginez, emanaldi berezi ugari eskainiz eta zenbait dantza berreskuratuz. Harkaitz dantza taldeak ere urte batzuk bete zituen martxan, 1974tik 1986 arte edo. 1950eko hamarkadaren erdialdean Xabier Lizardi idazleari zezen plazan egindako omenaldian Mirentxu Moraizek bultzatutako antzerki talde batek parte hartu zuen eta handik aurrera martxan jarraitu zuen Lizardi izenarekin, egile horren, Labaien edo Altzagaren euskarazko antzezlanak eskainiz. Lauzpabost urtetan zehar urtero emanaldia egin zuen Iparragirre antzokian Pazko bigarrean eta beste herri batzuetan ere aritu zen.

Ikastolak eta gau eskolak
Kultur alorrean mugimendu garrantzitsuena ikastolen sorrera-

rena izan zen. 1967an sortu zen Tolosan Laskorain ikastola herriko hainbat euskaltzaleren ekimenez, baimenak lortzeko arazo handirekin, baina urte gutxitan ikasle kopurua izugarri handitu zen (hamar urtetan mila ikaslera iritsi zen). 1980ean Kilometroak festa antolatuta zuten arrakasta handiz. Ondoren etorri ziren Anoetakoa 1969an, Ibarrakoa 1970ean, Villabonako eta Irurako ikastolak herriaren bultzadaz, sendotasuna lortuz berehala.

Ikastolekin bateratsu helduek euskara ikasteko gau eskolak sortu ziren, Francoren debekuak eragindako euskararen ezagutza eta erabilera jaitsierari buelta emateko asmoz. Lehen aipamenek diote Jon Oñatibia Oargin aritu zela klaseak ematen 60ko hamarkadan. Ahalegin indartsuena Laskorain ikastolaren sorrerarekin lotzen da, Sakramenti-

noetan, bertako irakasle eta guraso batzuk arituz klaseak ematen. Gerora Oargi eta Lizardi elkartera pasatu ziren gau eskolak. Urte gutxitan 800 ikasle inguru izatera pasatu ziren Tolosaldean.

Euskararen ezagutza eta erabilera jaitsierari buelta emateko asmoz sortu ziren gau eskolak

Gerra ondoren euskal kutsua zuen guztia debekatuta zegoen, zirrikituak ireki arte

Kultur elkarten artean, oraingoz Oargi eta Lizardi aipatu dira. Lizardi kultur hamabostaldiak antolatu zituen 70eko hamarkadan, Euskal Herriko kulturgile ospetsuenak bilduz: kantariak,

pintoreak, eskultoreak, idazleak, politikariak... Txinparta elkarterak ere hitzaldi ziklo nabarmena antolatu zuen 1973tik 1974ra Bibiano Larramendiren omenez. Baina bide luzeena eta nabarmena, CIT-TEEK egin du 1969tik hona. Inauterien biltzeko indarra aprobetxatuz, herriko hainbat elkarterek sortu zuten eta gaur egun Tolosaren erakusle hoi garrantzitsu diren Abesbatza Lehiaketa eta txotxongilo jaialdiekin batera, era askotako kultur ekitaldiak antolatu ditu urte hauetan, Antxon Ellosegi sortzaileak liburuak elkarrizketan azaltzen duenez. Euskal kantariak ere sortu ziren eskualdean, indarra handia lortu zuen Ez Dok Amairu taldearen itzalean. Euskara batuaren afera, Pott banda, Egiz eta Jakin aldizkariak dira liburuan aipatzen diren beste kultur gai batzuk.

Hilberriak**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

**M^a PILAR
OTEGUI
ARRILLAGA**AMEZTOY ANAIK S.L.
Marijo, gure lankidearen ama

ZARAUTZ, 2011ko abenduaren 16a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordeak: Imanol Garcia. **Kudeatzaileak:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 687 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldeak: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdeak: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldeak: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altxo, Armezketak, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Leitza.** Udalak aurrekontuen inguruko eta datorren urteko egitasmo nagusien berri emateko batzarra egingo du gaur, 20:00etan udal batzar aretoan.
- **Ibarra.** Ibarra kirol elkartearen bigarren sei hilabeteari dago-kion batzarra gaur, 21:00etan.
- **Tolosa.** Altxoan elkartearen eskutik bihar, ikerketa tailerra, 1 eta 3 urte bitarteko haurrentzat, 18:00etan, Aranburun.
- **Alegia.** Gaztetxearen 24. urteurrena dela eta, bihar egun osoko festa izango da: 14:00etan babarrun jatea; mus txapelketa ondoren; 19:00etan Manillares Iturriagaren kontzertua; 20:00etan zahagi ardoa; eta 22:00etatik aurrera Manillares Iturriaga, eta Dj-ak.
- **Tolosa.** SOS Arrazakeriak *Etxeak Langileak eta atzeritarren erregimena: datozen aldatuak* hitzaldia eskainiko du bihar, 11:00etan kultur etxean, Kultur Arteko Topaketen barruan.
- **Tolosa.** Bonberenearen urteurren festa, bihar (ikus 2. orria).
- **Asteasu.** Morauren kontzertua gaur, 20:30ean Ituriondon, eta bihar, Jostailuen I. Truke Eguna, 20:30ean.
- **Zizurkil.** Kirol Astearen barruan gaur, skate pista jarriko dute Aurrera plazan, 17:30etik aurrera, eta 19:30ean zizurkildar kirolariak omenduko dituzte Aurrera plazan. Bihar, 11:30etik aurrera haurrentzako jokoak eta kirolak izango dira, eta 22:00etatik aurrera haurrentzako zein helduentzako Gau Krosa egingo dute. Igandean, 10:00etatik aurrera, pilota partidak izango dira Intxaurren.
- **Villabona.** Oinkari dantza taldearen Dantza Astearen barruan gaur, Kherau taldearen kontzertua 22:30ean Gurean, eta bihar 17:00etan Santio Jaie-tako Oinkariren saioaren DVDaren emanaldia, eta 22:30ean *Ari du ikuskizuna* Olaederran.
- **Tolosa.** Trueke Eguna igandean, Zerkausian, 12:00etatik 17:00etara.

ZINEMA

- **Tolosa.** Igandean 17:00etan *Winter el delfin*, eta 19:30ean eta 22:00etan, *Margin Call*. As-telehanean 20:30ean, *Margin Call*.

- **Villabona.** Igandean *Katu bat Parisen*, 16:30ean.

MUSIKA

- **Tolosa.** Errota tabernan gaur, Unai Azkarateren erakusketa eta kontzertua izango da 19:30etik 22:30era.
- **Tolosa.** Tropicana taldearen kontzertua gaur, 23:30ean, Fronton kafetegian. Sarrerak 5 euro balio du.
- **Tolosa.** Indekitzen taldearen azken kontzertua gaur, 22:30etik aurrera Bonberenean.
- **Tolosa.** *Bayoneta* aldizkariaren 10. alea Napoleonen garaiko musikaren inguruko da, eta horregatik Udal Musika Eskolatu-ko kontzertua izango da musika eskolan bihar, 11:30ean.
- **Alegia.** Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzek Eguberrietako kontzertua eskainiko du bihar, Juan Bataiatzailea Deunaren elizan, 19:45ean.
- **Tolosa.** Tolosako Orfeoieko Eguberrietako kontzertua bihar, 20:30ean Leidorren.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Esna Bidean erakusketa inauguratuko dute gaur, 18:00etan Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** *Baserritik Zerkausira* argazki erakusketa Aranburun.

ANTZERKIA

- **Tolosa.** *Tengamos el sexo en paz* gaur, Leidor aretoan, 20:30ean.
- **Tolosa.** Calamar Teatrotan *La Cama voladora* txotxongilo lana bihar, 18:30ean, Topic-en.
- **Ikaztegieta.** Edurne Agirrezabalaren *Sarean zintzilikatua* bakarriketa gaur, 21:00etan udaletxe azpian dagoen areto nagusian.



Produktu eskaintza zabala izango da Gabonetako Azokan

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak ere postua jarriko du Gernikako Arbola inguruan

Rebeka Calvo Tolosa

XX. Gabonetako Azokan hiru gune izango dira larunbateko azokak dituen ohikoez gain: San Frantzisko pasealekua, Triangulo plaza eta plaza Zaharra.

San Frantzisko pasealekuan jakien eta artisauen postuak izango dira; Trianguloan barazki eta fruta ugari izango dira, eta baita ezitia, ahatekiak, gazta, txokolata eta ardoa bezalako produktuak ere; eta plaza Zaharrean euskal arrazako animalia erakusketa izango da. Aipatu behar da, era berean, plaza Zaharrean Bida-nitik etortzako euskal txerriaren produktuak ere izango direla salgai.

Odolki Lehiaketa

Trianguloan, San Blas elkartearen laguntzarekin antolatutako Odolki Lehiaketa izango da. 08:00etan jarriko dituzte sutan harategietako odolkiak. Momentuz 14 harategik eman dute izena, horietako bi eskualdekoak direlarik; Tolosako Luis Mari Garikano eta Muñagorri harategiak. Oraindik badago parte hartzeko aukera, hala ere, gaur 10:00etatik 13:00etara eman daiteke izena 943 69 75 21 telefono zenbakira deituta. 13:00etan emango dute jakite-

ra zein den lehiaketako irabazlea, baina goiz osoan zehar, egongo da aukera iazko lehiaketako irabazlearen odolkiak dastatzeko.

Aipatutakoaz gain, Tolosa Gourmeteko kide den Fronton-jatetxeak prestatutako konpota banatuko diete asteroko merkatuan egoten diren saltzaileei, egiten duten lana eskertzeko.

Esan bezala, Gabonetako Azokarekin batera ohiko merkatua ere izango da: baserritar produktuak eskuratu ahal izango dira Zerkausian, lore eta landareak Berdura plazan, eta askotariko produktuak Euskal Herria plazan.

HITZAREN POSTUA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak ere postua jarriko du. Gernikako Arbolen inguruan izango da, eta bertan, kale-ratu berri duen *Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean* liburua eskuratu ahal izango da. Harpidedunek 15 euroren truke eskuratu ahal izango dute, eta gainontzekoak 18 euro ordaindu beharko dituzte.

Era berean, 2008. urtean argitaratutako *1936ko Gerrako Oroitzapenak* ere erosi ahal izango da. Harpidedunek 8 euro ordaindu beharko dituzte, eta besteek 10 euro. Bi liburua erosi ere 20 euro ordaindu beharko dituzte harpidedunek eta gainontzekoek 25 euro.

Gogoratu ere, HITZAREN mahai egutegia ere bertan eskuratu ahal izango dela, eta baita Kantu Liburuxka ere.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

ETZI

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

ETZIDAMU

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!

Oihan Calahorra Murua. Igandean 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.

INKERNU
jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako mozorroak

Gernikako Arbola 1 behea • **TOLOSA** • 943 24 43 64 • elvinkernu@gmail.com